



Magiaren asteburua

Osasun gida.....

aldaz
hortz klinikak
RPS233/13
943 366 377
San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
943 740 359
Deba
943 192 192

leku
eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5 - Elgoibar
943 530 053

RPS 271/12
ainhoa
fisioterapia
Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar
943 531 953
669 565 745

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea
Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 953 628
www.fisio-mas.com
RPS 177/12

NATUR HOUSE
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELKADURAN ETA
DIETETIKAN DIPLOMATUA
RPS 203/16
Toribio Etxebarria, 22
Elibar
677 551 850

Bueltan da ELGOIBARKO IZARRAREN

TONBOLA

1.500 erregalu baino gehiago...

Aurreko urteetan

TONBOLAK izan duen estimazioak
bultzatuta, **abenduaren 24an, 11:00etatik aurrera,**

Elgoibarko Izarraren tonbola
jarriko dugu **Kalegoen plazan.**

Hasi gara opariak jasotzen! Eskerrik asko!



*Buruko zinta eta
giltzarra*



Abanikoak



*Haurrentzako
liburuak*



*Sukalderako
labana sorta*



Botilak eta poltsak



Kalkulagailua



*Gora musika
kamisetak*



*Haurrentzako etxeko
zapatilak*



*El Gautxo pizzerian
afari bonoa*



*Uxue Alberdiren
cd-ak eta liburuak*



643 499 169

943 741 626

elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus

Argitaratzailea:



Babeslea: Laguntzaileak:



Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.
20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112 - ☎ 688 655 658

Publizitatea: ☎ 943 743 704 - ☎ 688 769 657

barren@elgoibarkoizarra.eus

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

www.barren.eus

BARRENEK bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. Barrenek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta gutunak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **Koordinatzailea:** Ainhoa Andonegi. **Kazetariak:** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia. **Hizkuntza arduraduna:** Ainara Argoitia. **Publizitatea:** Leire Rubio. **Maketatzailea:** Zaloa Arnaiz. **Atari digitaleko arlo teknikoaren arduraduna:** Aitor Lauzirika. **Administraria:** Amaia Arrizabalaga. **Kolaboratzaileak:** Edurne Izagirre, Paula Heras, Ane Astiazaran, Izaro Etxegibel, Jose Ramon Cabrera, Ane Kortaberria, Asier Guisasola, Maialen Sanchez, Lere Kerexeta, Nagore Cancio. **Inprimategia:** Gertu Koop.E. **Tirada:** 4.700 ale. **Lege gordailua:** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855.



facebook.com/barrenaldizkaria



twitter.com/barreneus



instagram.com/barrenaldizkaria



youtube.com/@Elgoibarrennet

Leire Kerexeta Berasaluze

Komunikazioan eta Zuzenbidean Graduatua

Tragediatik, ikusgarritasuna



***"Eduki horiek elkartasuna
pizteko balio izan dute,
baina badirudi zenbaitek
irabazi asmoz
partekatu dituztela"***

Ez da inongo berria Valentziako Probintziak DANAK eragindako hondamendi latza jasan berri duela eta sare sozialak suntsitze honen irudi hunkigarritz bete direla, eskualdearen sufrimendua agerian utziz. Zalantzarik gabe, eduki horiek elkartasuna pizteko balio izan dute, baina badirudi zenbaitek irabazi asmoz partekatu dituztela halako irudiak. Horren harira, honako galdera etorri zait burura: bidezkoa al da beste norbaiten tragedia ikusgarritasuna eta ospea lortzeko erabiltzea?

Esan beharrik ez dago sare sozialek goitik behera aldatu dituztela gure bizitzak. Lehen, kazetariak zabaltzen zuten informazioa; orain, batez ere, arestian aipatu ditudan *influencer* edo eduki sortzaile definitzen direnek. Egia da, pertsona horiek beste edozeinek baino gaitasun handiagoa dutela audientzia mobilizatzeko; hala ere, uste dut, hondamendiaren irudietan markak eta auto promozioa nahasten direnean, bertan behera geratzen dela primerako helburu solidario hori. Hots, argazki eta bideoek publizitate kutsua hartzen dutenean, zaila dela zalantzan ez jartzea benetan hondamendiaren eragina erakutsi nahi duten edo, besterik gabe, kontratu bidez lotutako markak erakutsi nahi dituzten.

Are okerrago dena: aste honetan zehar Valentziako herri txikituren baten lokatzez betetako katiuskekin ateratako argazkia Gabonetako ekitaldi bateko photocall bateko argazkiarekin ordezkatu dute. Tragedia modu azkarrean ahaztu izanak hipokrisia kutsua ematen die, eta, gainera, sufrimendua negozio bilakatzen dutela pentsaraztera eramaten nau.

Bukatzeko, zoritxarrez Valentziako bizilagunek behar duten laguntza eta hondamendi honek utzi dituen triskantzak ez dira bizpahiru astetan konponduko, ezta sare sozialean jarraitzaile pila dituzten pertsonen argazkiak beraien profiletara argazkiak igota ere.

BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia eta Eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANA eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.eus

650 milioi haurrek sexu indarkeria jasan dute haurtzaroan

UNICEF Gobernu Kanpoko Elkartek mundu osoan haur edota nerabe zirelarik sexu abusuak pairatu dituztenen zifra kaleratu du lehen aldiz. Zifra ez dela guztiz erreala adierazi du, datuak biltzeko izandako zailtasunagatik. Urri erdialdean argitaratu zituzten datuak, eta haren arabera, gutxienez 650 milioi haurrek jasan dute haurtzaroan sexu indarkeria.

Zenbakiak jarri dira ikerketa honetan, kuantifikatzeko lana egin da nolabait, baina kontuan hartu behar dira salatu nahi izan ez duten edota salatu ezin izan dutenen kasuak.

Haurren aurkako sexu-indarkeria oso hedatuta dago, muga geografikoak, kulturalak eta ekonomikoak gainditzen ditu. Hemen datu batzuk:

- Biktima kopuru handiena Saharaz hegoaldeko Afrikan erregistratu da, 79 milioi neska eta emakumerekin (biztanleen %22).
- Ekialdeko eta Hego-ekialdeko Asia (75 milioi, %8).
- Erdialdeko eta Hegoaldeko Asia (73 milioi, %9)
- Europa eta Ipar Amerika (68 milioi, %14).
- Latinoamerika eta Karibe (45 milioi, %18).

- Afrikako Iparralde eta Mendebaldeko.
- Asia (29 milioi).
- Ozeania (6 milioi).

Nahiz eta neskak eta emakumeak diren kaltetuenak eta beren esperientziak gehiago eta hobeto dokumentatuta dauden, UNICEFek emandako datuek erakusten dute ume mutikoak eta gizonezkoak ere abusuaren biktima direla. Gutxienez, 240 eta 310 milioi haur eta gizonek (11tik 1ek, gutxi gorabehera) jasan dituzte bortxaketak edo sexu-abusuak haurtzaroan. Emakumeetan, berriz, 410 eta 530 milioi artekoa da datu, kontaktu fisikorik gabeko abusu moduak kontuan hartzen badira. Guztira, gizarte osoaren %10 eta 20k jasan ditu sexu abusuak haurtzaroan edo nerabezaroan.

Zer pentsatua ematen du gai honek, ezta?

A. I.



ETXEBERRIA

EHORZKETA-BEILATOKIA

943 741 327 (24 orduz)
635 756 295
629 635 203

Santa Klara, 16 - Elgoibar
info@funerariaetxeberria.com
www.funerariaetxeberria.com

Kutxak, trasladoak eta koroak.
Norbanakoei eta konpainiei zuzenduriko zerbitzuak.
Erietxe zentruetan zerbitzuak.



Zuen kexak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.eus

 943 744 112  688 655 658



Portal eta denda atarietan egiten dute txiza txakurrek:

"Errosario kalean bizi gara eta azkenaldian bizi dugun egoera jasanezina bihurtzen ari da. Txakurrek portal edota denda atarietan egiten dute txiza eta sekulako usain txarra egoten da. Horrez gain, txakurjabe askok merkatu plaza atzeko zubi zaharrera eramaten dituzte txakurrak txiza eta kaka egitera. Ez dut ulertzen! Ingurune horretan ez dago berdegunerik, asfalto da eta txizak eta kakak bertan geratzen dira. Une honetan, King Kong zubia obretan dagoenetik, bide hau da Urazandira joateko gehien erabiltzen dena, eta lotsagarria da txakurjabeen jarrera. Txakurra daukanak bere ardurak hartu behar ditu, eta arduren artean gainerako herritarrekiko errespetua ere sartzen da".



Bidegurutzeak dagokion lekutik gurutzatu behar dira:

"Ez dira bat edo bi, asko izaten dira Maalatik Urazandirako bidegurutzea ez dutenak dagokion lekutik gurutzatzen. Guasseko aparkaleku ingurutik Gaztetxea dagoen ingurunera dagoen semaforoa erabili behar da gurutzatzeko, eta ez Maalako biribilgunea. Bidea apur bat laburtzeko asmoz edo, herritar batek baino gehiagok biribilgune ingurutik gurutzatzen du errepidea, eta oso arriskutsua da. Aurreko batean, ilunetan azaldu zitzaidan gizonetzko bat oinez autoaren inguruan, eta sekulako sustoa hartu nuen. Egunen batean istripuren bat gertatuko da, arauak ez errespetatzeagatik eta orduan eskuak burura eramateak ez du ezertarako balioko".



Txalo bero bat 'Guria erabili zeinke' egitasmoaren sustatzaileei:

"Txalo bero bat merezi dute Amatau Mobila taldeko kideek. Umeei sakeleko telefonoa emateko adina atzeratzeko lanean ari dira, eta egitasmo hau oso interesagarria iruditu zait. Egitasmoan sartu diren establezimenduei ere eskerrak eman behar zaizkie, eta baita Udalari ere, erakunde publikoetako telefonoak ere jarri dituztela gazteen eskura. Gai kezkarria da sakeleko telefonoarena eta denok batuta aurrerapausoak ematen baditugu, lortuko dugu. Eskerrik asko eta segi bide horretan".



Trenaren aldeko Borroka Eguna izango dute biharkoa Altzolan

Augarren urtez, Trenaren Aldeko Borrokaren Astea izendatu du datorren hau Tren Publiko, Sozial eta Iraunkorraren aldeko Espainiar Estatuko Koordinakundeak, Alianza por el Clima elkartearekin batera. Ekimenarekin bat egin du Altzolan Tren Geltokia Bai plataformak; eta, beste hainbat eragilerekin elkarlanean, jardunaldia antolatu dute Altzolan biharko. Egitarau osoa prestatu dute, eta umeentzako puzgarri bat ere jarriko dute.

■ 16:00-16:30: Auzoan barrena ibilaldia egingo dute, tren-geltokiaren egoera ezagutzera emateko. Karmen plazatik abiatuko dira.

■ 16:30-16:45: Klimaren aldeko Aliantza eta Tren Publiko, Sozial eta Iraunkorraren aldeko Estatuko Koordinakundeko ordezkariak parte hartuko dute.

■ 16:45-17:10: Altzolan Tren Geltokia Bai plataformakoen aldarrikapena.

■ 17:10-17:20: Altzola eta Bidebieta: Kantauriko korridorea, ETS tartea. (Sagararak ekologista taldekoen eskutik)

■ 17:20-17:45: Sindikatu etako ordezkarien parte hartzea.

■ 17:45-18:15: Eztabaida/solasaldia

■ 18:15- Gaztañerre Egunaren baitan gaztaina erreak banatuko dituzte

Ama Birjina Milagrosaren egutegia salgai dago

Ama Birjina Milagrosaren 2025eko egutegia salgai jarri dute aste honetan. Nahi duenak Maalako kaperan erosi dezake, 10:00etatik 13:00etara bitartean. Bestalde, hilaren 19tik 27ra Milagrosaren bederatziurrena ospatuko dute. 09:00etan izango dira mezak, Maalako elizan. Azaroaren 25, 26 eta 27an 17:30ean era egongo da meza.

Txankakuaren udazkeneko ginkanako saridunek jaso dute saria



Elgoibarren erosteak saria du lemapean antolatu du udazkeneko ginkana Txankakuak, eta 5.000 euro banatu ditu saritan. Joan zen astean egin zuten sari banaketa: 500 euroko bi sariak Kontxi Elustondok eta Gurutze Letonak jaso zituzten, eta gainerakoek 200 euroko erosketak bonoak jaso zituzten: Juani Bastida, Joselis Perez,

Arrate Usatorre, Rosi Rodrigo, Aurora Soto, Ana Fernandez de Jauregi, Luisa Gomez, Ana Jorge, Patricia Lorenzo, Lara Urain, Ana Rementeria, Ana Casquero, Maria Isabel de Rivero, Edurne Agirre, Isabel Ansola, Ianire Izagirre, Araceli Riesgo, Maria Teresa Gonzalez, Pepita Goenaga, eta Ignacio Ladron.

Makina-erremintaren museoak

25. urteurrena ospatuko du azaroaren 28an

Makina-erremintaren museoa 1998ko abenduan ireki zuten eta 25 urtez dihardu makina-erremintaren kontserbazioaren eta dibulgazioaren bueltan lanean. Azaroaren 28an ospatuko dute urteurrena, lagunez inguratuta. Enpresa-komunitate eta pertsonen osatutako "museoaren lagunak" gonbidatu dituzte, industriako 80 eragile baino gehiago. Bertan, Elgoibarko Udalaren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eusko Jaurlaritzaren ordezkari ofizialak izango dira, bai eta Museoko patronatuko kideak diren AFM klusterrekoak, IMH Campusekoak eta Danobatgroupekoak ere. Gonbidatuak hainbat ogibide tradizional ikusi ahal izango dituzte zuzenean. Ekitaldia *networking* batekin eta mokadu bat partekatuz amaituko dute.



Lila Saria bazkari baten bueltan elkartzeko probestu dute Haizea Emakume Taldekoek



Emakume askoren bizitzan funtsezko zutabea izan da Haizea Emakume Taldea Elgoibarren, eta horrexegatik, emakumeen eskubideen defentsan eta sustapenean egindako ia 40 urteko ibilbideagatik, Lila Saria eman diete aurten. Sari hori bazkari baten bueltan elkartzeko probestu zuen joan zen egunean Haizearen baitako batzorde ezberdinetan lanean aritutako emakume talde batek. Txarridunan egin zuten bazkaria.

Memoriaren Eguna gogoratu zuten domekan

Memoriaren Eguna izendatua du Eusko Jaurlaritzak azaroaren 10a, eta Elgoibarren ere egin zuten askotariko indarkerien biktimak omentzeko ekitaldia. Giza Eskubideen parkean landatuta dagoen Gernikako Arborearen ondoan egin zuten elkarretaratze isila udal ordezkariak eta zenbait herritarrek.



700 sinadura bilduta bukatutzat eman dute Azkarateko bidea konpontzeko sinadura bilketa



Sallobente-Ermuaran auzoko bizilagun talde bat sinadurak batzen hasi zen duela astebete, baina kanpaina bertan behera lagatzea erabaki dute, Aldundiak jakinarazi duelako 2025ean hasiko dituztela errepidea konpontzeko lanak. Astebete baino gutxiagoan 700 sinadura batu dituztela azaldu dute kanpainaren sustatzaileek eta pozik daude izandako erantzunarekin. Aldundiko Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako diputatua den Felix Urkolari eskura eman dizkiote sinadurak, "sinatzaileei zor genien errespetuagatik" eta eskerrak eman dizkiete Elgoibar eta inguruetakoko herrietako bizilagunei kanpainarekin bat egiteagatik. Aldundiak 300.000 euro jarriko ditu Azkarateko errepidea berritzeko. Proiektua idazten ari direla jakinarazi dute arduradunek, urtarrian lanak lizitatu eta egonkortze-lanak maiatza ingururako hasi ahal izateko.

**'El Diario Vasco' egunkariaren
2025eko egutegirako lehiaketan
saritu dute Jose Ramon Cabrera**



Gipuzkoako erretratuekin osatzen du *El Diario Vasco* egunkariak urteko egutegia, eta Mutrikuko portuan ateratako argazki bat saritu diote Jose Ramon Cabrera Elgoibarko argazki afizionatuari.

Ez da hori izan aurtan jaso duen sari bakarra. Izan ere, Avia gasolindegien egutegirako ere saritu baitiote beste bat. Aipamen berezia jaso du baita ere Ermuko Oporrak argazki lehiaketan, eta Miradas de Bidasoa lehiaketan ere finalista izan da. Horrez gain, BARRENEK egindako inauterietako eta oporretako lehiaketetan ere jaso ditu sariak.

Bilboko manifestaziora joateko autobusa antolatu du Elgoibarko Bilduk

EH Bilduk manifestazioa antolatu du Bilbon azaroaren 23rako, *Nazioa Gara* lemapean, eta hara joateko autobusa antolatu dute Elgoibartik. 17:30ean hasiko da manifestazioa Autonomia kalean, eta autobusa 16:00etan irtengo da Elgoibartik. Interesatuak izena eman behar dute Jai Alai edo Ibai Ondo tabernetan, Bilgunean edo Whatsapez 618 680 940 zenbakira idatzita.

Odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Elgoibarko Jubilatuen Biltokian

Arratsaldeko 16:30etik aurrera odol ateratzeak egingo dituzte gaur, Jubilatuen Biltokian. Arduradunek txanda aurrez hartzeko eskatu dute 623 328 408 telefonoan.

'MIRARIAK': MAGIA ETA ILUSIOA

'Mirariak' izeneko magia jaialdia antolatu du Alain Zulaika Niala magoak astebururako, Elgoibarko Udalaren laguntzaz. Ilusioa eta magia ekarriko ditu Elgoibarrera, eta oraingoan gainera, beste lau mago izango ditu lagun. Zapatu eta domekarako egitaraua prestatu dute ume zein helduentzako, eta magia ikuskizunez gain, tailerrak ere emango ditu. Plaza mugatuak dira, eta izena eman behar da kontaktu@niala.es helbidera idatzita.

✍️ Ainhoa Andonegi

Magia egitea eta ikustea du gustuko Alain Zulaika Niala magoak. Ahal duen guztietan joaten da inguruko herrietako magia topaketetara, eta oraingoan bera joan beharrean, magia etxean antolatzea pentsatu du, elgoibartarrei herritik mugitu gabe magiaz gozatzeko aukera emateko. Udaberrian egitekoa zuen jaialdia, baina osasun arazoak tarteko, bertan behera laga behar izan zuen. Orain, indarberrituta dator mago elgoibartarra. *Mirariak* izena jarri dio jaiari, eta ilusioz beteriko asteburua izango dela aurreratu du. Adin guztietako jendearentzako magia saioak prestatu ditu, gertutik ikustekoak, magia distantzia txikian gehiago gozatzen delako. Bihar goizean hasiko dira ekitaldiak umeentzako magia tailerrarekin. 6-12 urte bitartekoentzako saioa prestatu du, eta adinka bereiztuko ditu, talde txikitan, trukoak erakusteko. Edukiera mugatua dauka tailerrak, eta izena eman behar da parte hartzeko, kontaktu@niala.es helbidera idatzita. "Saio horietan umeek izugarri gozatzen dute, eta gurasoek ere bai, trukoak ikastea denei gustatzen zaie", esan du Nialak. Iluntzean, bestalde, Niala magoaren ikuskizun berriaz gozatzeko aukera egongo da Aita Agirren. Helduentzako saioa izango da, eta heriotzaren gaia landuko du. Suizidioa, haragitzea eta betiko tabuak landuko



ditu magiaren bidez. "Beti izan da heriotza gai tabua niretzat, baina aldi berean, interesgarria. Magia ikuskizuna heriotzaren gaian oinarritu dut, saio serioa izango da, helduentzako. Magia eta filosofia uztartuko ditut".

Domeka eguerdian, bestalde, familientzako magia ikuskizuna izango da Maalako parkean, Imanol Ituño magoarekin. Umorezko magia saioa izango da, etxeko guztiek gozatzeko modukoa. Iluntzean, 5 mago ikuskizuna egingo dute, Aita Agirren. Gertuko magian oinarritutako saioa izango da, eta 35 bat lagunentzako lekua izango du saio bakoitzak. Bi saio egingo dituzte segidan, 18:30ean eta 20:00etan. "Espero dut nahi duen jende guztiak izatea magiaz gozatzeko aukera asteburuan".

ALAIN ZULAIKA / Niala magoa

12 urte zituela hasi zen Alain Zulaika (Elgoibar, 2000) magia ikasten. Bilboko magia eskola batean egin zituen ikasketak eta etengabe formakuntzan ari da. Niala magoa izenez da ezaguna, eta poliki-poliki bidea egiten ari da magia munduan.

"Gertuko magian oinarrituko da asteburuko programazioa"



Nola bururatu zitzaizun 'Mirariak' magia jaialdia antolatzea?

Azken urte hauetan batetik bestera ibili naiz ikuskizunak ematen eta beste mago asko ezagutu ditut. Portugaleterako jaialdi bat antolatu genuen, eta iruditu zitzaidan polita izan zitekeela Elgoibarren horrelako bat egitea. Herrian oso ondo hartu izan naute beti, jendeari gustatzen zaio magia, tabernariak ere beti zabaldu izan dizkidate ateak... Udalekoei ere komentatu nien nire ideia, eta hasieratik babestu ninduten.

Gertuko magian oinarritutako jaialdia izango dela diozu. Zertan datza?

Gertuko magian onenak gara Espainiako magoak. Blackpool-en (Erresuma Batua) egon nintzen magia kongresu batean, eta Espainiako magoei buruz hitz egiten egon ziren uneoro. Berezik nabarmendu zuten gertuko magia egiten daukagun abilezia. Orduan hori egin nahi dut oraingoan. Magia oholtza gainean eta areto handi batean ikustea ondo dago, baina trukoak gertutik eta formatu txikian ikustea oso interesgarria iruditzen zait. Horregatik aukeratu dut Aita Agirre kulturunea hainbat saiotarako. Edukiera mugatua dauka, eta agian motz geratu daiteke, baina espero dut ezetz. Umeen tailerretarako ere talde txikiak dira hobeak, gehiago ikasten dutelako. Pentsatzen dut nahi duten guztiek izango dutela asteburuan magia gozatzeko aukera, eta bestela, datorren urtean antolatuko dut berriro.


Magia udaleku batean hasi zen abentura hau, baina dagoeneko Niala magoak lortu du izena hartzea magiaren munduan. Zertan diharduzu une honetan?

Bai, 12 urte nituen. Magia Borrás jolasa oparitu zidaten eta nire jolasik gustukuena bilakatu zen. Amak udarako magia udalekuak topatu zituen, eta hara joan nintzen. Egunero etortzen zen magoren bat trukoak erakustera, eta liluratuta itzuli nintzen handik. Mago izan nahi nuela esan nuen etxean. Gero magia ikasketak egin nituen Bilbon. Imanol Ituño izan zen nire irakasleetako bat, eta gaur egun berarekin ibiltzen naiz magia egiten. Lan handia egiten ari naiz, eta pozik nago. Azkenaldian saio askotarako deitzen didate, eta esan dezaket une honetan magiatik bizitzen ari naizela, gurasoen etxean oraindik, baina badauzkat diru-sarrera batzuk. Oso lan ezegonkorra dau hau, hilabete batean lan pila bat egiten duzu eta hurrengoan ezer ez, baina kulturgintzako gainerako sektoreetan ere gauza bera gertatzen da. Dena dela, oso pozik nago. Askok mugitzen naiz, lan komertzial handia egiten dut nire burua saltzeko, saiatzen naiz magia kongresuetan parte hartzen jendea ezagutzeko, kontaktuak egiteko... Artista izaten ikasten ari naiz, mundu hau gorabehera handikoa delako. Mago askok esan izan didate magiarekin gozatu arren sarri pentsatu izan dutela lagatzea, baina nik oraindik badaukat honi eusteko energia. Mago asko gaude Euskal Herrian, eta Madrilen zer esanik ez, baina magia euskaraz egiten dugunok ez gara hainbeste. Mugituz gero, lekua egitea badago.

IKUSKIZUNEAN PARTE HARTUKO DUTEN BOST MAGOAK

Aritz Petricorena

Iruindarra da, eta orain dela 10 urte inguru ezagutu zuten elkar Nialak eta biek. Instagram bidez egin zuten lehenengo kontaktua, eta magia emanaldi batean egin zuten topo estreinakoz. Ordutik hainbat lan egin dituzte elkarrekin, eta esanguratsuen joan den hilean European zehar egin zuten bidaia izan da. Beste sei magorekin batera Amsterdam, Bruselas eta Ganten ibili dira magia saio batekin. Nialaren esanetan, Aritzek magia elegantea egiten du.



Sergio Martinez



Duela 10 urte ezagutu zuen Nialak Sergio Martinez, Bilboko magia eskola batean. Urtebete eman zuten elkarrekin ikasten, eta ordutik eskutik joan dira. Magia ikuskizun askotan bat egin dute, eta azken urtean hainbat lan egin dituzte elkarrekin. Biek batera egiteko ikuskizun bat prestatu berri dute eta datorren urtean estreinatuko dute. Filosofia ikaslea da Martinez, eta bere magian islatzen du.


Maria Arandia



Asteburuko galan arituko den mago emakumezko bakarra da. Magia munduan emakumezkoak ez dira asko, baina Nialak eta baita Udalak ere nahi zuten emakumezkoen presentzia bermatzea. Maria duela urte gutxitatik ezagutzen du Nialak. Hasiberria da magia munduan eta interesgarria iruditu zaio gala ikustera etortzen diren neska gazteei magia munduko emakumezko erreferenteak erakustea.

David Garcia

Bilbotarra da David Garcia, eta aspalditik dabil magia munduan. Bilboko magia eskolaren bueltan ibilitakoa da, baina han ez ziren elkarrekin ibili Niala eta bera. Ondoren egindako topaketa batean ezagutu zuten elkar, eta harrez gero, oso harreman estua dute. Magia du pasio, baina magia egiteaz gain, *showman* totala dela dio Nialak. Beraz, magia egitearekin batera, David Garcia izango da *Mirariak* galako aurkezlea.



Imanol Ituiño

Imanol Ituiño magoa bilbotarra da. 14 urterekin sartu zen magoen elkartearen, eta ordutik etengabe dihardu magia egiten. Gaur egun Gure Zirkua zirkoko magoa da. Familia osoarentzako ikuskizuna ekarriko du Elgoibarrera. Kartak, sokak, bolak agertu eta desagertzeko abilezia dauka, eta ilusionista ere bada.

■ Belaunaldiartekotasuna josten



Joskintza tailerra antolatu du Mendaron In Leike kultur elkarteak eta 50 bat lagunek eman dute izena, emakumeak denak. Josten edo puntuan asko egindakoak eta sekula orratz bat eskuan hartu bakoak daude taldean, eta astean behin edo birritan elkartzen dira udaletxean, martitzen edota eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara. Eman-hartu sisteman oinarritu dute tailerra, "denek denengandik ikasteko".

✍️ Ainara Argoitia

Udaletxean sartzeaz bat entzuten da berbaroa. Hirugarren solairuko hegala oso bat hartuta dauka In Leike kultur elkarteak martitzen eta eguazten arratsaldero moduan, eta gaur, hogeitaka emakume ari dira orratzak hartuta lanean, elkarrengandik ikasten. Gehiago dira, hala ere, tailerrean izena emandakoak. "Gaur gaurkoz, 49 bat lagun gara, denak emakumeak, baina aldiro-aldiro batzen da berriren bat", zehaztu du Dorleta Lazarobaster In Leike kultur elkarteak. Izena emandakoen artean, 13 urte eskas ditu gazteenak eta 74 urte beteta zaharrenak, eta estreinakoz batu dira espazio berean, elkarrekin zerbait egiteko. Haria,

artilea eta orratzak aitzakia dira sorkuntza eta belaunaldiartekotasuna lantzeko.

"Lurdes eta Kontxi Urain ahizpek eta Aintzane Lazkanok In Leikeri egindako proposamenetik etorri da dena. Joskintza tailerra antolatzea proposatu ziguten eta gustatu zitzaigun. Iruditu zitzaigun polita izan zitekeela bereziki adin tarte bateko jendearentzako aukerak sortzeko. Heldu genion kontu hari eta aitortu beharra daukagu gure uste onenak ere gainditu dituela honek. Sortu nahi genuenari forma emateko, urriaren 9an elkartzea proposatu genien interesa izan zezaketen mendaroar guztiei, argi geneukalako truke-sisteman oinarritu nahi genuela tailerra. Hau da, gaudenon artean konpontzea zela kontua,

zekitenek ez zekitenei erakustea, kanpotik norbait ekarri ordez", azaldu du Lazarobasterrek. Antolatzaileak eta gainerakoak ere harrituta gelditu ziren batzar hartara agertutako jende kopurua ikustean. Adin ezberdineko 32 lagun elkartu ziren, eta asteen bina orduko bi saio egitea adostu zuten, martitzen eta eguaztenetan, 17:00etatik 19:00etara.

Bilera hartan parte hartu zuen Mailo Altunak. In Leiketik sortu nahi zuten hura ohiko jostintza tailer bat izango zen ustearekin batu zen bera hasierako batzarrera, eta aitortu du ez ziola tankera onegia hartu hasieran, baina "izugarri gustura" dabilela orain. "Irakasle bat egotea espero nuen nik eta esan zutenean elkarri erakusten jardungo ginela zalantzati gelditu nintzen. Eszeptiko xamar joan nintzen lehenengo saiora, baina asko gustatu zait tailerrean topatu dudana giroa. Adin ezberdinetakoak elkartzen gara, eta ikasteko ez ezik, sozializatzeko eta lagunartea handitzeko ere balio du. Oso esperientzia ona ari da izaten", azpimarratu du.

Sasoi batean josten asko egindakoa da Altuna, baina ikasteko asko duela dio eta bereziki puntuan eta kakoratz-lanetan trebatzeko eman duela izena. "Denbora konturatu gabe pasatzen da hemen. Badut erretzaile amorratua den lagun bat, eta hark ere gauza bere esaten dit: bi orduan ez dela tabakoaz akordatu ere egiten!". Marimar Monreal da laguna. "Ez dakit zer den, baina ni erlaxatu egiten naiz hona etorrita, trankildu, eta

"Denbora konturatu gabe pasatzen da hemen. Badut erretzaile amorratua den lagun bat eta gauza bere esaten dit:

bi orduan ez dela

tabakoaz akordatu ere egiten"

- MARILO ALTUNA -

hori sekula ez dudala josten egin aurrez. Botoiak josten nekien nik, doi-doi, eta hemen oso gustura ari naiz ikasten", dio. Oherako tapaki bat egiten ari da orain Marimar. Marilok eman dio hasiera. Puntu banaka batzuek ihes egiteak ernegatzen dute tarteka, baina ilusioz ari dela nabari zaio. Ondoan ditu irakasleak, behar dituenetako: Lurdes, Kontxi, Aintzane, Rosi, Marilo eta beste hainbat. "Nik laguntzen diot bati, eta beste batzuek laguntzen didate niri. Ez nuen usteko hain ondo funtziona zezakeenik honek", aitortu du Marilok. Haurdun dauka alaba gazteena eta biloba izango duenarentzat manta bat sortzen ari da.

Bakoitza berean ari da hemen. Etxean egindako lanak eramateko eskatu zuten antolatzaileek batzarrean, eta mahaian dituzte ikusgai eredu guztiak. Mahai luze bi elkartu dituzte, eta inguru denean ari dira lanean, taldetxotan banatuta. Ertz batean poltsak josteko oihalei begira ari dira gazteagoak. Talde horretara batu da Ainara Perez ere. Eskulanetan trebea dela nabari zaio



erremintak hartzeko moduan. "Beti gustatu izan zait artisautza. Puntua egin izan dut eta beste gauza batzuk ere bai, baina neure kasa ikasi dut dena, Youtuben eta Pinteresten begiratuta. Hona etortzea ezberdina da, baina. Asko dakien jendea dago hemen, pazientzia handiko irakasleak denak, eta gure artean sortu den giroa izugarria da", esan du. "On egiten dit niri hona etortzeak". Aipatu du egungo bizi-erritmoak ezartzen duen erritmo azkarrek areagotu egin duela erlaxazioarekin eta autokontzientziarekin lotutako praktiken eskaera, baina askotan halako ekimenak beste terapia askok bezain lagungarri izaten direla. "Hain egoten naiz kontzentratuta hemen, ahaztu egiten zaizkidala minak eta gainerako kontu guztiak", nabarmendu du.

Burua arintzeko balio dionak balio dio irudimena lantzeko ere, eta dio lagungarri zaie beste askori artritidak, artrosisak eta enparauek gogortutako artikulazioak mugitzeko ere. "Nik ikusten dudana da gaur egun asko handitu dela kirol eskaintza inguruetan, baina kirola gustuko ez duenak eta adin bateko jendeak, eta batez ere emakumeek, aukera gutxi dutela gaur, eta askok espazio bat topatu dutela hemen gustuko dutena egin eta beste pertsona batzuekin sozializatzeko. Iruditzen zait jende asko zegoela halako zerbaiten zain eta eskertu dutela aukera eman zaienean",

"Gure euskal dantza talderako arropak jostea nahi nuke. Iruditzen zait jende asko dagoela hemen lanerako gogoz eta bideratuko bagenu ilusio hori lortuko genukeela gure arropak hemen jostea"

- AINARA PEREZ -

gehitu du. Josteko-makina erabiltzen trebatu nahi luke bereziki berak, eta horretara jarri nahi du poltsa bukatutakoan, antolatzaileek bi makina inguratu dituztela probestuta. Badu ilusio bat ere: "Herriko euskal dantza talderako arropak jostea. Iruditzen zait jende asko dagoela hemen lanerako ilusioz eta bideratuko bagenu ilusio hori guztia lortuko genukeela gure arropak hemen bertan jostea, kanpora eskatu beharrean lan hori. Gonak josten hasteko, patroia moztuko duguna badugu taldean, Yulia [Prokopenko]". Lehenengo, baina, poltsa amaitu nahi du. Gaur, martitzena, zalantzak argitzera dator tailerrera, ez baitauka gehiagorako astirik. "Sartu-irten hau egin nahi nuen, etxean lanean jarraitzeko, engantxatuta nago-eta". Ez da bakarra. Kontatu du Karkizano dendara material bila egindako ostera baten dendariak berak ere esan ziola nabaritu zuela



halako ilusio bat, edozenbat jende joan zaiolako azken egunetan josteko material eske.

Perezen ilusiia partekatzen du Arrate Iriondok ere. Etxean hasita zeukan abarketa pare amaidetza izan da tailerrean egin duen lehenengo lana, baina orain, dantzarako gona josi nahiko lioke alabetako bati. Aitortu du beti gustatu izan zaiola orratzekin saltseatzen ibiltzea, baina askotan kosta egiten zitzaiola hasitako lanei errematea ematea, etxean beti topatzen zuelako beste egitekoren bat. Hemen, gustuko lanean aritzeko patxada topatu du, eta lagunarte bat tertuliarako. "Arrakasta handia izan du tailer honek eta pozten naiz. Iruditzen zait espazio hau beharrezkoa zela eta gauza polita dela adin ezberdinetako jendea gauza baten inguruan elkartzea".

Ertzera eginda daude edadetuenak. Kakorratz-lanetan ari dira, betaurrekoak sudur gainean kokatuta denak. Josten ibilitakoak dira gehienak aurrez, egin izan dituzte gauzaren batzuk puntuan ere bilobak txikiagoak zituztenean, eta badute eskua orratzekin, baina..., beti daude bainak. "Batean puntua estuegi dagoela, bestean nasaiegi... Orain egin, orain askatu... Nahikoa lan", aitortu du Mari Tere Lazarobasterrek. Asteartero joaten da joskintza tailerrera. "Elkartu gara hemen taldetxo bat kakorratz-lanetan trebatzeko. Ni neu oso pozik etortzen naiz hona, lagunartera. Hizketako denbora askorik ez dugu izaten, kontzentratuta egoten garelako, baina hemendik irtendakoan esaten ditugu kontuak. Batean txurro batzuk jan, bestean tabernan zoezer hartu... horretarako aitzakia ere eman digu honek", esan du

Marije Arakistain da Mari Tereren taldeko bat, eta lagunak diote bera dela gehitxoan dakiena, baina nahikoa hasiberritzat dauka berak bere burua honetan. 74 urte ditu, bera da tailerreko




beteranoena ere, eta lan eder askoak ditu josita orratzekin, nahiz ez den denbora asko kakorratz-lanetan hasi zela. Duela pare bat urte itxi zuten Debako Katamar dendan aritu zen ikasten, bi urtez. "0-tik hasi nintzen neu ere. Kakorratzak eskuan hartzen ere ez nekien, alabak ikastaro haren berri eman zidanean. Eman nuen izena eta astean behin joaten ibili nintzen Debara, harik eta itxi zuten arte. Eskerrak orain hau sortu dutela!". Eman-hartu sistema da Mendaroko tailerretik gehien gustatu zaiona.

Martitzenetan batzen da Arakistain taldera, eguazten eta egunetan kina-jokoa izaten dutelako jubilatuetan: "Ni oso gustura etortzen naiz, baina ni ikusteko beldurrez izango dira hemen batzuk beharbada, egindakoa soltatzeko agintzen diedalako beti. Gusto pixkatekin egin behar dira gauzak, presaka beharrean, bestela beti gaizki egindakora joango zaigulako gero begia. Haria tenkatzen ikasi behar da hemen. Ez da ezer, eta dena da hori. Inor ez da jaio ikasita, eta gaizki eginez ikasten dugu hemen denok, baina kosta egiten zaie askori oker jositakoa soltatzea eta berriro hastea". Badaki zer den hori berak ere. "Niri ere gertatzen zitzaidan. Fularrak zeuden modan ni ikasten hasi nintzenean eta neuk ere nahi izaten nuen hasitakoa bi orduan amaituta itzultzea etxera ikastarotik, baina ezin da". Esperientziaren ahotsa da Marijerena, baina bera ere ikasteko dagoela dio hemen. Ilusio horrekin batzen dira tailerrean izena emandako guztiak taldera astean behin edo birritan. "Balorazioa oso ona da. Ez dadila orain haria eten", errematatu du Marijeren alaba Dorleta Lazarobasterrek. ■

*"Arrakasta handia izan du tailer honek
eta pozten naiz. Iruditzen zait espazio hau
beharrezkoa zela eta gauza polita dela
adin ezberdinetako jendea
gauza baten inguruan elkartzea"*

- ARRATE IRIONDO -



JON OLIVARES

Aktorea

✍ Ainhoa Andonegi

Atxutxiamaikako hezitzaile moduan ezagutu genuen Jon Olivares Elgoibarren. Taupada antzerki taldeko kidea ere bazen, eta ikusi genuen tarteka oholta gainean. 2018an 'Patria' telesailerako paper bat egiteko deia jaso zuen, eta lanean sei hilabeteko eszedentzia hartuta joan zen, epe hori amaituta itzultzeko asmoz. Lan haren ostean, bata bestearen atzetik etorri zitzaizkion proiektu berriak eta aktore izateko apustua egin zuen. Gaur Tantara Teatroarekin etorriko da Elgoibarrera, 'Esnearen kolorekoa' aurkeztera. 19:00etan izango da emanaldia, Herriko Antzokian.

“Asko maite dut Elgoibar eta berezia izango da Herriko Antzokira itzultzea”

Zer ikusiko dugu 'Esnearen kolorekoa' obran?

Antzezlan 1800. urte inguruan kokatzen da, Ingalaterrako baserri giroko familia batean. Klase apaleko familia da, diru gutxi daukate, eta haien alaba herrena da protagonista nagusia, Mary (Aitziber Garmendia). Ez daki ez idazten ezta irakurtzen ere, beti baserrian bizi izan da, baina halako batean herriko bikarioaren etxera joango da lanera, haren emaztea zaintzera. Mary lotsagabea da, ez du han egon nahi, baina azkenean gustua hartuko dio bikarioaren emazteari eta geratu egingo da. Idazten eta irakurtzen hasiko da bikarioarekin, eta harreman horretan ikusiko dira gizon-emakumeen arteko botere-harremanak, klase sozialen arteko gatazkak, zapalkuntzak... Antzezlari dramatikoak da. Aitziber Garmendia protagonista izanda, badiu ukitu komikoak ere, baina orokorrean, okerrera doan drama da.

Eta, zure papera zein da?

Ni bikarioaren semea naiz, beti nahi izan duen guztia lortu duen tipo harroputz bat. Mary euren etxera ama zaintzera iristen denean ikusten da

nolakoa den benetan tipo hori, eta ikusiko da nolako mespretxuz tratatzen duen Mary. Goitik behera begiratzen dio, baserriko neska arrunt bat besterik ez da beretzat, eta Maryrekiko daukan jarrera hori emakume guztiekiko erakusten du. Bere ama da salbuespena; ama da errespetatzen duen emakume bakarra.

Gaizto papera egitea tokatu zaizu, beraz. Zein paperetan sentitzen zara zu erosoago?

Oraingoan ere gaiztoarena egitea tokatu zait, bai. Tokatu izan zaizkit horrelakoak egitea, eta gozatu izan dut guztiekin. Gustatuko litzaidake egunen baten komedia bat egitea. Nire burua komikotzat daukat, baina momentuz ez dut horretarako aukerarik izan.

Gaur Elgoibarren taularatuko duzue obra. Herriko Antzokira itzuliko zara. Zer da zuretzat hori?

Herriko Antzokikoa izan zen zapaldu nuen lehen oholta, eta ilusioa egiten dit Elgoibarren antzezteak. Asko maite dut Elgoibar, eta berezia izango da Herriko Antzokira itzultzea. Bergaran

antzeztu nuenean ere presio moduko bat sentitu nuen, eta hemen ere seguru sentituko dudala, baina polita izango da. Nik uste Elgoibarko ikusle gehienek ikusi izan nautela Taupadarekin oholtzan, baina orain desberdina da. Lehen afizionatua nintzen eta orain profesionala naiz. Beste begirada batekin ikusiko nau publikoak, baina seguru dena ondo joango dela.

Elkarrizketa egiteko unean, grabazioan harrapatu zaitugu. Zertan ari zara orain?

Telesail bat grabatzen ari naiz Pausoka eta Zebra ekoiztetxeekin. Gipuzkoako hainbat herritan gabiltza irailetik; Donostia, Errenteria... bi hizkuntzatan grabatzen ari gara, ETBrako eta Netflixerako.

Antzerkigintza, zinema eta telebista probatu dituzu. Zer duzu nahiago?

Nik uste dut mundu honetan denetik probatu behar dela. Taupadan nenbilenean oso argi neukan antzerkia egin nahi nuela eta antzerkia zela nirea, baina gaur gaurkoz ez daukat batere garbi. Esango nuke azken batean proiektuaren eta momentuaren arabera dela. Aurten, adibidez, topera ibili naiz antzerkian eta bost bat hilabete egin nituen grabaziorik gabe. Epe horretan falta igarri nuen, baina aldi berean, filmatzen eman ditudan urteetan, antzerkiaren falta igarri dut. Denak dauka bere alde ona eta txarra. Nire ustez, antzerkigintza probatu gabe telebistara salto egitea akatsa da.

Atxutxiamaikan ezagutu zintugun hezitzaile modura, eta Taupadarekin aritzen zinen orduan aktore lanetan. Imaginatzen zenuen 'Patria' grabatzera joan zinenean gaur aktore izango zinela?

Inondik inora. Hezkuntza mundua beti gustatu izan zait eta Atxutxin oso gustura nenbilan, baina aktore lana ere gustatzen zitzaidan eta baneukan zerbait egiteko gogo. 14 bat urtez egon nintzen Taupadan, pila bat ikasi nuen eta oso gustura nengoen, baina nahi nuen zerbait egin Taupadatik harago. 2018an etorri zitzaidan *Patria* telesailean parte hartzeko aukera, eta ezin nion ezetz esan. Sei hilabeteko eszedentzia eskatu nuen Elgoibarko Izarran eta nire asmoa itzultzea zen. Gero pandemia etorri zen, eta haren ostean lana lanaren atzetik etorri zitzaidan. Lan asko eta desberdinetan hartu dut parte, eta denetan

"Ez nuen espero bost-sei urtean bide hau guztia egingo nuenik"

jardun naiz gustura. Ez nuen espero bospasei urtean bide hau guztia egingo nuenik.

Herri txiki batetik foko guztien aurrean jartzera egin duzu salto. Nola daramazu ezaguna izate hori?

Osintxutik irten naiz, baina sarri itzultzen naiz herrira. Lagun berri asko egin ditut, eta Donostian egoten naiz orain gehienbat, baina esango nuke ni betikoa naizela. Duela bi urte hezitzaile moduan joan nintzen Zuatzara, eta oso gustura egon nintzen. Alde horretatik Euskal Herrian oso lasai bizi gara. Donostian aktore lagun taldea daukagu, eta bai, jendeak begiratzen digu kalean goazenean, baina errespetu handiz. Batzuetan foko aurrean agertzeak pereza ematen du, badiugu guk ere egun txarrak, baina hori da gure lana. Osintxun nire lagunekin eta familiakoekin etxean sentitzen naiz. Idolo izate hori ez zait sekula gustatu.



Kontzertuak eta magia jokoak izango dira gaurtik domekara bitartean Gastrorock ekimenaren baitan

Atzo, eguena, hasi zuten Elgoibarko Aizu! gastronomia elkartekoek Gastrorock astea, eta gaur, bihar eta domekan segida izango du. Gaurko, Rockalean taldearen kalejira antolatu dute, 20:00etatik 22:00ak bitarterako, eta ondoren, Akerbeltz taldeak kontzertua emango du, Maalan (01:00ak arte). Biharko ere antzerako plana egin dute. Iluntzean, Elgoibarko Patxangoi elektrotxarangakoak ibiliko dira kalez kale 19:00etatik 21:00ak bueltan giroa berotzen, eta gauerako Idoia Azurmendiren kontzertua iragarri dute. Kalegoen plazan izango da kontzertua, 22:30ean hasita. Domeka eguerdian,



berriz, Niala magoa ibiliko da tabernaz taberna magia jokoak egiten.

'Kanpora sartzen' antzezlanaren taularatuko dute gaur, Mendaron



Aitziber Garmendiak zuzendutako antzezlanaren da gaur Mendaron taularatuko duten *Kanpora sartzen* eta GIB birusaz kutsatutako Xabin Fernandezek istorio pertsonala kontatzen du. San Agustin kulturgunean izango da emanaldia, 22:00etan hasita. Sarrerak Morroskillo dendan eskuratu daitezke aurrez, baina aretoko sarreran ere egongo dira salgai.

Beñat Gaztelumendirekin kantuan aritu dira Debabarreneko bertso eskoletako ikasleak Elgoibarren

Mutrikuko, Soralueko, Mendaroko eta Elgoibarko bertso eskoletako ikasleak Elgoibarko Kultur Etxeko sotoan batu ziren barikuan. Egin duten hirugarren topaketa izan zen barikukoa, eta gonbidatu berezi bat batu zitzaion taldera: Beñat Gaztelumendi (Añorga, 1987) bertsolaria. 17:30ean elkartu ziren ikasleak eta irakasleak, eta mokadua egin ostean, inprobisazio ariketak egin zituzten. Aurrena, baina, eta ohi legez, agurrak kantatu zituzten, taldeka. Etxean lo egindako bertsoak izan ziren agurrak, baina ondoren bat-batean ere aritu ziren haurrak zein irakasleak. Eneko Beretxinaga bertsolari eta Elgoibarko eta Soralueko bertso eskoletako irakasleak egin zituen aurkezpen-lanak, eta gozatu zuten denek hitzarekin jolasean. Beñat Gaztelumendiri



puntuak ere jarri zizkioten haurrek, eta hark pentsatutako pertsonaia ezkutua asmatzen ere jolastu ziren, galdera-erantzun bidez, kantuan.

Euskararen erabilera aztertuko du Siadecok Elgoibarren, Udalak eta Elgoibarko Izarrak eskatuta

Euskararen erabilera aztertzeko ikerketa soziolinguistikoa egingo du Elgoibarren Siadecok Elgoibarko Izarra elkarteak eta Elgoibarko Udalak eskatuta. Modu horretan 1992-1993an egindako azken ikerketan lortutako datuak eguneratu eta kontrastatu nahi dituzte.

Elgoibarren euskararen erabilera sustatzeko eta normalizatzeko oinarri izan zen Siadecok orduan egin zuen ikerketa, eta orain, euskararen egungo egoera duela 30 urtekoarekin alderatuko dute, lortutako lorpenak ebaluatzeko eta herritarren iritziak jasotzeko. Elementu horiek funtsezkoak izango dira *Elgoibar 2025-2035* plan estrategikoaren ekintza-ildoak zehazteko. Azterlanaren lehen fasean, elkarteei, enpresei eta establezimenduei kontsultak egingo dizkiete, tokiko bizitzako hainbat eremutako hizkuntza-egoera ezagutzeko. Ondoren, inkesta bat egingo diete herritarrei, euskararen erabilerari buruz



dituzten jarrerrei eta iritziei buruzko ikuspegi zabalagoa lortzeko. Udalak eta Elgoibarko Izarrak azterlanaren kalitatea eta ordezkagarritasuna bermatzeko erakunde eta pertsona posible guztien lankidetzaren garrantzia azpimarratu dute. Horregatik, komunitateari aktiboki parte hartzeko eskatu diote, eta Siadecoko taldeak egindako galderei erantzuteko eskatu.

Giro onean ospatu zuten Magosto Eguna



Galiza Etxeak antolatuta, Magosto Eguna ospatu zuten zapatuan Maalako parkean. Ourenseko Progo pedaniatik ekarri zituzten 150 kilo gaztaina eta Maalan bertan erre zituzten guztiak. Antolatzaileek esan dute uzta ona izan dela aurtengoa eta gaztainak oso goxoak zeudela. Eguraldia lagun, herritar asko gerturatu ziren, eta giro onean pasatu zutela goiza.

Azaroaren 22an zabalduko dute Atxutxiamaikaren neguko oporraldian izena emateko epea

Eguberrietako oporraldirako negulekuak antolatu ditu Atxutxiamaikak Udalarekin lankidetzan, eta gaur zortzi zabalduko dute izena emateko epea. HH2-LH4 adin tartekoek Txokoak izango dituzte 09:00etatik 13:00etara. Txoko hauek bi txandatan banatuko dira: lehen txanda abenduak 23, 26 eta 27an egingo dute eta bigarrena abenduaren 30ean eta 31n, eta urtarrilaren 2an eta 3an. LH1-LH4 bitarteko haurren kasuan, txoko horien baitan bi egun-pasa izango dituzte, bata abenduaren 27an, eta bestea, urtarrilaren 2an.

LH5-LH6ko umeentzat, berriz, abenduaren 30ean iluntze-pasa izango dute, urteari amaiera emateko, eta urtarrilaren 2tik 4ra bitartean egonaldia izango dute; bi gau eta hiru egun. Udalak dirulaguntzak emango ditu. Azaroaren 22tik abenduaren 8ra egongo dira eskuragarri, *elgoibar.eus* webgunean edo Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana, 2).

Frantzisko Martin Kruzelaegi konpositoreari buruzko hitzaldia, egunean



Frantziskotarra, konpositorea, organista eta organo-zaharberritzailea izan zen Frantzisko Martin Kruzelaegi elgoibartarra (1742-1803), Mexikon erroak bota zituen, eta hari buruzko hitzaldia emango du Elgoibarren azaroaren 21ean, Alonso Hernandez Prado doktoreak. Musika eskolako auditoriumean izango da hitzaldia, 19:00etan, eta Martin Kruzelaegiren konposizio batzuk ere entzun ahal izango direla aurreratu du Pello Arrieta historialariak. Hernandez doktoreak Frantzisko Martin Kruzelaegik Mexikon izan zuen garrantzi artistiskoaz hitz egingo du nagusiki, baina baita haren konposizioen estiloaz ere, Mexikoko ondare kulturalaren parte baitira.

Alonso Hernandez Prado, berriz, izen handiko musikari eta ikertzailea da. Mexiko Hiriko Musika Kontserbatorio Nazionalean kontrabaxu jotzaile gisa titulatu zen eta musikako maisutza ikasi zuen Yale Unibertsitatean, diploma graduatua Bostongo New England Conservatoryn, arte doktoretza Guanajuatoko Unibertsitatean eta doktoretza ondoko egonaldia egin zuen gero Cenid - Conachyten. Hamabi urtez Queretaroko (Mexiko) Orkestra Filarmonikoko kontrabaxu jotzaile nagusia ere izan zen eta gaur egun denbora osoko irakaslea da Queretaroko Unibertsitate Autonomoan, Conachyterko Ikertzaileen Sistema Nazionaleko lehenengo mailan eta musika pedagogiako master amaierako lanen aholkularia da Errioxako Nazioarteko Unibertsitatean (Espainia). Egun, doktoratu ondoko egonaldia egiten ari da, Jaengo Unibertsitatean (Espainia).

'Giza zarata' diskoa aurkeztuko du Anarik Elgoibarren, Euskararen Nazioarteko Egunean, abenduaren 3an



Abenduaren 3an, Euskararen Nazioarteko Egunean, kontzertua emango du Anarik Elgoibarren. Azkoitiarrak eta bere taldeak 1996an kaleratu zuten lehen diskoa, *Anari* izenarekin, eta, harrez gero, iraupen luzeko beste sei disko kaleratu dituzte. Giza zarata izan da azkena, eta disko hori aurkeztuko dute Herriko Antzokian, 19:00etan. Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topaguneak eta Elgoibarko Udalak antolatu dute kontzertua eta sarrerak Herriko Antzokiaren webgunean jarriko dituzte salgai (herrikoantzokia.eus) 10 euroan (3 euroan gazte txartela dutenak). Kontzertuaren atarian, euskarari lotutako poesia-irakurraldia izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

Erraldoi txikien erakusketa zabalduko dute gaur zortzi, Elgoibarren



Gorka Alonso elgoibartarraren eta Idoia Otega eibartarraren bildumako erraldoi txikiek osatutako erakusketa zabalduko dute gaur zortzi, azaroaren 22an, Elgoibarko Kultur Etxean. 2019an hasi ziren erraldoi txikien bilduma osatzen Alonso eta Ortega, eta dagoeneko 185 ale baino gehiago dituzte. Erakusketa hilaren 5era arte egongo da ikusgai, astelehenetik zapatara, 18:30etatik 20:30era.

Kalejirak eta kontzertuak izango dira Elgoibarren eta Mendaron Santa Zeziliaren omenez

Azaroaren 22a da Santa Zezilia, musikaren zaindariaren eguna, eta egun horren bueltan hainbat ekintza egingo dira Elgoibarren eta Mendaron. Hasteko, azaroaren 18an eta 19an Inazio Bereziartua musika eskolako talde instrumentalek kontzertua emango dute 19:15ean hasita, musika eskolako auditoriumean, eta azaroaren 21ean, Gaztenahia korukoak eta Betisua txarangakoak kalejiran irtengo dira musika eskolatik. Azaroaren 23an, berriz, 10:30ean diana jotzera irtengo dira dultzaineroak eta egun berean, 13:00etan,



kontzertua emango du Elgoibarko Udal Musika Bandak Herriko Antzokian, 13:00etan.

Mendaron, trikitilari eta panderojoleak kalera irtengo dira azaroaren 20an, 17:00etan. Musika eskolan bertan hasiko dute kalejira. Azaroaren 22an, berriz, kalejiran irtengo dira Bizi Poza txarangakoak, 19:00etan.

Gaba Beltzaren baitan antolatutako argazki lehiaketak baditu irabazleak



Udal Ludotekak, Atxutxiamaikak eta Inazio Bereziartua musika eta dantza eskolak antolatu zuten Gaba Beltzaren inguruko argazki lehiaketa, eta jakinarazi dute guztira 38 argazki jaso zituztela eta 228 lagunek eman zutela botoa. Udal Gaztelekuko erabiltzaileek kudeatu dute bozketa. Irabazleak, berriz, honako hauek izan dira: Naia Ortega eta Laia Ramirez; Goizalde Luluaga eta Carla Ibarlucea. Irabazleek Txankakuako dendetan gastatzeko 20 euroko erosketa-bono bana jasoko dute.

'Go!azen' telesailaren denboraldi berriko lehen atala, primizian

UEMAk eta EITBk hitzarmena sinatu dute *Go!azen* eta *Irabazi arte* telesailen atal berriak mankomunitate barruko herrietan aurrez estreinatzeko, eta hala, domekan, hilaren 17an, Euskal Telebista estreinatzeaz den *Go!azen* telesailaren hamaikagarren denboraldiko lehen kapitulua ikusteko aukera izango dute mendarotarrek. Azaroaren 22tik aurrera ikusi ahalko dira atal berriak ETB1 katean nahiz *eitb.eus* atarian. Segidan, Makusi eta Nahieran plataformetan ere bai. Lehenago, ordea, *Altzor*



Ezkutua izeneko atalaren aurrestreinaldiaz gozatzeko aukera izango da azaroaren 15ean Makusi plataforman eta baita Euskal Herriko hainbat herritan ere, tartean, Mendaron.

Elgoibarko Udal Gobernuak 21,5 milioi euroko aurrekontu proiektua aurkeztu du 2025erako, %10 txikiagoa



Elgoibarko Udal Gobernuak 21.486.483,51 euroko aurrekontua proposatu du 2025erako, aurtengo hasierako aurrekontua baino %10,71 txikiagoa. Arduradunek gogoratu dute aurtengoa "inoizko handiena" izan dela, %24 hazi zelako aurreko urtetik. 2025erako aurrekontuari begira nabarmendu dute "estrategikoki banatuta" dagoela, funtsezko arloetan eragina maximizatzeko. Baliabideak honela banatzea proposatu dute:

- Antolaketa Arloa: 6.076.677,50 € (%28,28)
- Herrigintza: 7.059.755,83 € (%32,86)
- Lurraldetasuna: 8.349.652,76€ (%38,86)

Aurrekontuaren barruan, Gizarte Ongizate Saila %9 handitu dute, eta horri esker, etxez etxeko laguntza-zerbitzuak, gizarte-larrialdietarako zerbitzuak eta adinekoentzako baliabideak hobetzeko asmoa azaldu dute. Kultura arlorako %3ko igoera proposatu dute, eta Euskara Sailerako, berriz, %2koa. Gazteriaren arloan, bestalde, %5eko jaitziera egongo da, 2024an egin zuten ludoteka berriko inbertsioak ez duelako baliabide handiagorik beharko datorren urtean. Era berean, ingurumenarekiko eta energia berriztagarriekiko konpromisoa hartu dutela azaldu dute, alor horretarako "inbertsio zehatzak" proposatuta.

Udalak, bestalde, diru-sarrerak handitzea aurreikusten du 2025ean, hainbat baliabideren bidez: zuzeneko zergak, ondasun higiezin, ibilgailuen eta jarduera ekonomikoen

kontribuzioak %2 handituko dira. Era berean, tasek eta bestelako zergek %12ko igoera izango dute, eta hiri-hondakinen bilketa izango da atal honetan pisu handiena izango duen partida, guztiaren %65a izango baita. Transferentziei dagokienez, Gipuzkoako Foru Funtsak %5,77 egingo du gora, eta 10.335.000 eurora iritsiko da. Kapital-transferentziek, berriz, %13ko gehikuntza orokorra izango dute. Autonomia Erkidegoaren (+%51) eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren (+%39) babesa ere nabarmendu dute.

Udal Gobernuak dio aurrekontu honek elgoibartarren egungo beharrei erantzuten diela, "udalerrri irisgarriagoa, jasangarriagoa eta kohesionatuagoa eraikiz". Esan dutenez, proposamena oposizioko taldeekin partekatu dute, eta ekarpenak jasotzeko eta proposamen berriei aberasteko. Udalaren asmoa da azaroko Osoko Bilkuran aurrekontua onartzea, "aurrekontu parte-hartzaile eta adostua bultzatuz".

INBERTSIO NABARMENENAK

1. Urazandi zubia: 643.541,64 euro
2. Bide publikoen konponketa: 200.000 euro
3. Udal-komunitate energetikoa: 140.397,92 euro
4. Sallobenteko ur-hornidura: 400.000 euro
5. Landa-eremuetako lanak: 210.000 euro
6. Gizarte Zerbitzuak bultzatzea: 35.000 euro
7. Haur-parkeak: 40.000 euro

Carlos Soria alpinistak hartuko du parte Kirol Federatuaren Urteko Sariak banatzeko ekitaldian

Abenduaren 18an banatuko dituzte 2024ko Kirol Federatuaren Urteko Sariak, baina aurrez, euren hautagaitzak aurkeztu beharko dituzte Elgoibarren dauden hemezortzi kirol elkarteek, azaroaren 19a baino lehenago. Ohitura duten moduan, kirolaren inguruko solasaldi batekin jantziko dute Udal Kirol Patronatuak antolatzen duen sari banaketa ekitaldia, eta Carlos Soria alpinista ezaguna izango da aurtengo gonbidatua (Avila, Espainia, 1939). 85 urte eduki arren, Himalaiako menditzar handiekin amesten segitzen du, eta hamalau zortzimilakoak osatzeko falta zaizkion bi mendiak igotzeko ahaleginean dihardu. Dhaulagiri eta Shisha Pangma dira zortzimilakoen zerrendan zapaltzeke dituen tontorrak. 60 urtetik aurrera hasi zen zortzimilakoei erreparatzen. Igoak dituen hamabi zortzimilakoetatik hamar adin horretatik aurrera igo ditu. 62 urterekin igo



zuen Everest (8.848 metro), 65ekin K2 (8.610 metro), 69rekin Makalu (8.463 metro), 75ekin Kanchenjunga (8.586 metro) eta, 77 urterekin, Annapurna (8.091 metro)

Larrialdiak kudeatzeko ikastaroa emango du Urbizik azaroaren 28an

Larrialdi egoera batean bizitza bat salba dezaketen teknikak eta jakin beharrekoak irakatsiko dituzte azaroaren 28rako (19:00etatik 21:00etara) antolatu duten Larrialdiak kudeatzeko ikastaroan. Parte hartzeko ez dela alde aurreko ezagutzarik

behar zehaztu dute antolatzaileek. Doan izan da ikastaroa, baina hamabost lagunentzako plazak dituztela ohartarazi dute. Izena emateko bidali mezu bat urbizuirazpikoelkartea@gmail.com helbidea edo jo Olaizaga kiroldegiko harrerara.

'Aketegiko Mari, alpinismoa eta mitologia uztartzen' dokumentala emango dute eguaztenean, Morkaikoren zikloko bigarrena

Koke Lasa Berasategi mendizale ormaiztegiarrak ondu duen ikus-entzunezko lan honek Euskal Herriko paisaia ederrez goatzeko aukera ematen du, baina "ezohiko begirada batetik", egileak zehaztu duenez. "Ez da mitologia edo alpinismoari buruzko emanaldi soila, Mariren eta gazte batzuen arteko kontakizun bat baizik. Aspalditik mugitu gara Aizkorrin, neguan batez ere, bertako kanal eta korredoreak igotzen. Bagenekien Mariren haitzuloetako bat hor zegoela eta bururatu zitzaidan lotura bat egin



zitekeela kontakizun bat asmatuz", azaldu du Lasak. Orduerdiko dokumentala da Morkaikoren Udazkeneko Mendi Emanaldi Zikloan emango dutena. Eguaztenean, hilaren 20an, Aita Agirre Kulturgunean (19:00).

Karakateko Igoeraren 30. ekitaldia, bihar



Bihar, zapatua, jokatuko dute Karakateko Igoera. 11:00etako kanpaiak jotzeaz batera irtengo dira korrikalariak Kalegoen plazako frontoitik, eta bakoitzak nahi duen bidetik, Karakate puntaraino igoko dira. Partaideek tontorrean dagoen puntu geodesikoa ukitzean hartuko dituzte denborak. Lau kilometroko ibilbidean 700 metro inguruko gorako desnibel positiboa gainditu beharko dute parte-hartzaileek. Lehenengo gizonezkoak eta emakumezkoak, eta lehenengo emakume zein gizonezko elgoibartarrek izango dute saria, eta baita aurpegi onenarekin iristen den korrikalariak ere. Horrez gain, iaz estreinakoz eman zuten sari berezi bat ere banatuko dute: Morkaikokoek denborari begira saltaka egiten ez duten saltakariak ere

Karakateko Igoeran parte hartzera animatu nahi dituzte, eta lehen sailkatuaren denbora bikoizten duen parte-hartzailea ere sarituko dute. "Denborara gehien hurbiltzen dena, pasatu gabe", zehaztu dute.

Izena ematea doan da eta egunean bertan eman ahal izango da izena Kalegoen plazan, 09:30etik 10:45era bitartean. Antolatzaileek 125 parte-hartzailetan jarri dute muga. Iaz, 97 lagunek hartu zuten parte eta Haritz Unamuno bergararra izan zen gizonezkoetan azkarrena eta Ainhoa Lendinez elgoibartarra emakumezkoetan. Probako errekorra Iban Muruak ezarri zuen 2017an: 26 minutu eta 17 segundo. Emakumezkoetan Maite Maiorak du errekorra, 2016an ezarria: 31 minutu eta 37 segundoan.

Futbolaz, osasun mentalaz eta euskaraz mintzatu dira futbolari ohiak

Futbolari buruzko mahai-ingurua egin zuten martitzenean musika eskolan, Jo Ta Sua taldearen 25. urteurrenaren harira. Markel Bergara eta Imanol Agirretxe Realeko jokalaria ohiak eta Yolanda Mateos jokalaria ohiak aritu ziren berbetan, Jon Gurrutxagak eginiko galderei erantzunez. Bakoitzak futbolekin izan duen ibilbidearen berri eman ostean, hainbat gairi buruzko iritzia eman zuten; besteak beste, osasun mentalaren garrantzia gizartearen zein kirolean edo euskara eta futbolaren arteko harremanaz. Amaieran ikusleen galderak erantzun zituzten hiruak. Jo Ta Sua-koek peña sortu zutenetik hil diren taldekideak ere omendu zituzten ekitaldian, eta



oroigarriak eman zizkieten Jon Salegi "Sarobe", Manu Osoro eta Mikel De Pablaren senideei.

Elgoibarko eta Mendaroko lasterkariak ere izan dira Behobia-Donostian



Antxixikari eta zaletu askok egutegian gorritz markatuta izaten dute azaroko bigarren domeka, Behobia-Donostia herri lasterketa jokatzan den eguna. Aurtan ere milaka saltakarrik egin dituzte korrika Behobia eta Donostia arteko 20 kilometroak. 24.970 lasterkarrik bukatu zuten proba, tartean 58 elgoibartarrek eta bost mendarorrek. Aurtengoan sekula baino emakume gehiagok hartu du parte, 7.869 emakumek, hain justu ere, edo beste era batera esanda: parte hartzaileen %31,25 izan ziren emakumeak; errekor berria. Igor Elizburuk, bestalde, esku bizikleta modalitatean hartu zuen parte eta 54:41ko denboran osatu zuen ibilbidea. Iaz hiru minutuan ondu zuen bere marka pertsonala, eta iazko denbora horri ia bi minutu jan dizkio aurtan. Sailkapen nagusiko bederatzigarren postua eskuratu zuen elgoibartarrak.

Elgoibartarren sailkapena

118	Mikel Aguirrebeña Iturbe	01:11:40
164	Julen Salaberria Anton	01:12:48
335	Mikel Gurrutxaga Barruetabeña	01:15:31
542	Jon Dominguez Cid	01:18:00
591	Inigo Iturbe Ortiz De Zarate	01:18:22
651	Aitor Goenaga Olazabal	01:18:47
731	Ion Irazabal Garciandia	01:19:16
1.014	Miguel Montes Perez	01:21:11
1.204	Markel Amutxastegi Yarza	01:22:21
1.632	Oier Irazabal Garciandia	01:24:27
2.233	Gurutz Quintano Aguirrezabal	01:27:19
2.269	Iker Hernandez Acuña	01:27:28
2.392	Asier Iraeta Agirregomezhorta	01:27:53
2.622	Martin Dominguez Lopez	01:28:41
2.852	Ibon Belaustegui Urrutia	01:29:21
3.479	Andoni Bilbao Irazabalbeitia	01:31:13
3.657	Joseba Astigarraga Iriondo	01:31:39
3.901	Mikel Elkoro-Irribere Beristain	01:32:18
4.107	Iker Etxeberría Fulgencio	01:32:50
4.117	Haritz Arribillaga Elizburu	01:32:50
4.385	Berex Ortiz Ardanza	01:33:28
4.795	Iñigo Aduriz Lekuona	01:34:29
4.924	Asier Rodriguez Blanco	01:34:47
5.506	Asier Aguirregomezhorta Unamuno	01:36:06
5.562	Ander Gabilondo Intxausti	01:36:14
6.114	Patxi Loiola Urain	01:37:21
6.287	Arlene Alcorta Mateo	01:37:42
6.563	Francisco Javier Boo Fernandez	01:38:15
7.210	Gorka Luna Azpiazu	01:39:22
7.655	Ander Martin Sanchez	01:40:04
7.808	Unai Usatorre Juaristi	01:40:21
8.249	Aitor Arruabarrena Gurrutxaga	01:41:10
9.625	Oier Ruiz Osoro	01:43:30
9.958	Pilar Arriola Diez	01:44:06
10.018	Julen Almenara Alberdi	01:44:11
10.020	Nora Gallardo Gabiola	01:44:12
10.174	Miguel Angel Montes Crespo	01:44:28
10.631	Mikel Astigarraga Santos	01:45:12
10.933	Javier Hernando Albert	01:45:43
11.234	Zigor Bengoetxea Ansoa	01:46:16
11.312	Adrian Charles Oñederra	01:46:22
11.597	Ane Astigarraga Osoro	01:46:51
11.713	Miren Lahoz Idarraga	01:47:05
13.108	Oier Arriola Leyaristi	01:49:34
13.116	Xabier Arriola Leyaristi	01:49:34
13.665	Oscar Rey Alonso	01:50:28
14.363	Olaia Astigarraga Prada	01:51:50
14.463	Eider Iriondo Ansoa	01:51:59
16.142	Irati Elgeta Arreitunandia	01:54:59
16.147	Maren Treviño Agirregomezhorta	01:54:59
16.616	Oier Iribarren Barrera	01:55:56
17.347	Iker Gil Torres	01:57:21
18.743	Eneko Orive Santos	02:00:04
20.783	Aitor Kortazar Astigarraga	02:05:56
21.263	Alexander Bilbao Aldekoa-Otalora	02:07:46
21.370	Samuel Ruiz De Lorenzo	02:08:11
23.422	Beñat Konde Untzilla	02:23:12

Esku bizikleta

9	Igor Elizburu Astigarraga	54:41
---	---------------------------	-------

Mendaroarren sailkapena

926	Patxi Salegi Martija	01:20:35
1.575	Miguel Angel Urkiza Anakabe	01:24:08
8.660	Jurjan Ezenarro Arriola	01:41:52
12.158	Borja Rodriguez Barreras	01:47:55
15.393	Igor Ezenarro Arriola	01:53:41

GARAJEAK

Garaje itxia salgai, Jausoro plazan.
Sarrera erraza dauka. 18 m².
626 591 658

LANA

Eskaerak

Adinekoak zaintzeko eta
etxeko lanak egiteko prest
nago. Urteetako esperientzia.
Erreferentzia onak. **660 919 423**

Adinekoak edo umeak zaintzeko
prest nago. Etxeko lanak ere
egiten ditut eta baita portalak
garbitu ere. **641 997 308**

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Arduratsua naiz. Esperientzia.
Etxeko langile moduan edo orduka
egingo nuke lan. **632 708 954**

Enpresa administraritzan
lizentziatua lanerako prest.
Digitalizazioan esperientzia
handia. **642 270 746**

Baserrian lan egiteko prest.
Orduka edo etxeko langile moduan
jarduteko prest. **632 721 342**
Adinekoak zaintzeko edo
garbiketa lanetarako prest nago.
Esperientzia handia. **632 721 342**

Zerbitzari lanetan jarduteko prest
nago. **632 065 398**

Adinekoak zainduko nituzke,
orduka. **612 540 008**

Adinekoak zaintzeko prest nago,
etxeko langile moduan edo
orduka. Gaez eta asteburuetan
lan egiteko prest. **641 692 366**

Erizain laguntzailea naiz eta
adinekoak edo ezinen bat dutenak
zaintzen egin izan dut lan
urteetan. Garbiketa lanetarako
edota baserriko lanetarako ere
prest nago. Gidabaimena eta
autoa ditut. **602 834 107**

Animaliak zaintzeko, garbiketak
egiteko, obran jarduteko edo
adinekoak zaintzeko prest nago.
627 245 746

Adinekoak edo umeak zaintzeko
eta garbiketa lanak egiteko prest
nago. **627 340 932**

Adinekoak zaintzeko prest nago,
orduka. Gaez, asteburuetan...
Ospitalean ere bai. Titulua daukat
eta paperak legez.
641 169 366

Lan bila nabil. Esperientzia handia
daukat garraiolari lanetan.
616 828 320

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Esperientzia handia daukat.
Etxeko langile moduan edo orduka
jarduteko prest.
632 708 954

Adinekoak zaintzeko prest nago,
etxeko langile moduan edo
orduka. Titulo soziosanitarioa
daukat. Erizaina naiz.
Esperientzia.
643 505 662

Adinekoak zaintzeko prest nago,
etxeko langile moduan edo
orduka. **643 505 827**

Adinekoak zaintzeko prest nago.
Soziosanitario titulua daukat.
614 114 360

Adinekoak zaintzen nahiz lokalak
garbitzen egingo nuke lan.
643 097 599

Adinekoak zaintzen egingo nuke
lan. Erizain laguntzaile titulua
daukat eta esperientzia.
628 839 248



Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas
Asociación Española de Administradores de Empresas



ROSA Mª PINTADO

Etaldeen Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

660 969 679
rosapf@telefonica.net

Etxebizitza bat daukat alokairuan utzia eta alokairu kontratuaren arabera maizterrak komunitate gastuak ordaindu behar ditu. Badira hilabete batzuk, maizterrak, komunitate gastuen ordainagiriak bueltan bidaltzen dituela. Jabeen azken batzarrean erabaki zuten ordaindu gabekoak erreklamatu behar zaizkiola. Jakin nahi nuke ea komunitateari eska diezaiokekan zorretan dauden kuotak maizterrari erreklamatzeari.

Azaldutako egoeran bi harreman daude: batetik, zuk komunitatearekin duzun harremana, eta horren arabera zu derrigortuta zaude komunitate gastuak ordaintzera betebeharra pertsonala delako. Bestetik zuk, alokairu kontratuaren bidez maizterrarekin duzun harremana. Horren baitan biezako betebeharrak daude. Horietako bat da maizterrak komunitate gastuak ordaintzea horrela adostu baitzenuten kontratuan. Beraz, zuk baino ezin diezaiokezu hori eskatu eta betebeharrak horietaz ezin da komunitatea arduratu.

Aholkua: Komunitatea etxejabearekin eskatzera baino ezin da mugatu eta honek ezin du aitzakia modura esan etxeko alokairuan daukanak ez dituela kuotak ordaintzen. Hortaz, arazoa etxejabearen eta maizterraren artean konpondu behar dute komunitatea albo batera utzita eta hauek elkarri egiten dizkieten erreklamazioez arduratu gabe.




AHOLKULARI KOLABORATZAILEA
San Bartolome, 2



Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira Barreneko bulegora,
barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara edo  **688 655 658** bidalita.



Zorionak, **Haizea**,
gaur 5 urte
bete dituzulako.
Gurasoen eta
ahizparen
partez.



Zorionak, **Mara!**
Atzo 8 urte
potolo bete
zenituelako.
Muxu pila,
etxekoan partez,
printzesa.



Zorionak, **Danel!**
9 urte haundi!
Primeran pasatu
zure eguna,
potxolo. Asko
maitte zaittugu.
Muxu haundi bat
etxekuen partez.

Erretratu bakarreko agurra: 4,50€.
Argazki bikoitza: 7€. Hirukoitza: 9€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€.

ELGOIBARKO IZARRAKO
BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra: 3,50€.
Argazki bikoitza: 6€ Hirukoitza: 8€.
Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€.

**Zabaldtu atea
BARREN astekariari,
eta egin zaitez
harpidedun!**

Aspaldi bazabiltza BARREN etxeko buzoian
jaso nahian edo jaso nahi lukeen beste norbait
ezagutzen baldin baduzu, oraintxe duzu aukera.
Deitu, idatzi edo etorri bulegora.

943 744 112
barren@elgoibarkoizarra.eus
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk.



EXPRESS ESKAINTZAK!

**BOSCH
KGN392WEF
COMBI**



579 €
unitateko



- NoFrost
- 203 zm-ko altuera
- 368 litro
- VitalFresch Kutxa
- Helduleku integratua

**MILARBIRE**

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es
Dendako prezioak. Produktuak agortu ari.

15 BARIKUA

16:30 Odol ateratzeak.
Elgoibarko Jubilatuen Biltokian.
Txanda hartzeko: 623 328 408
19:00 Antzerkia: 'Esnearen kolorekoa'. Herriko Antzokian.
22:00 Antzerkia: 'Kanpora sartzen'. Mendaroko San Agustin kulturgunean.

16 ZAPATUA

11:00 Karakateko Igoera.
Morkaikk antolatuta,
Kalegoen plazan hasiko da.
18:00 Magosto jaia. Altzolan.

17 DOMEKA

17:00 'Go!azen' telesailaren denboraldi berriko lehenengo atalaren emanaldia, primizian, Mendaron. Udaletxean.

18 ASTELEHENA

18:00 Hausnarketa saioa, emakumeentzat: 'Erantzukizun afektiboa'. Loredi Salegik gidatuko du saioa. Lilan.
19:15 Talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolan.

19 MARTITZENA

19:15 Talde instrumentalen kontzertua. Musika Eskolan.

20 EGUAZTENA

17:00 Ipuin kontaketa saioa, bizikidetza, feminismoa eta genero inklusioa oinarri hartuta. Udal Liburutegian, LH1 eta LH2koentzako.
17:30 Kalejira Mendaron Ameikutz musika eskolako trikitilari eta panderojoleekin.
17:30 Haurren eta nerabeen eskubideen nazioarteko eguna. Ospakizuna egingo dute Ludotekan eta Gaztelekuan.
19:00 Udazkeneko mendi emanaldia: 'Aketegiko Mari, alpinismoa eta mitologia uztartzen'. Koke Lasak emango du saioa. Morkaikk antolatuta, Aita Agirre kulturgunean.

21 EGUENA

18:00 Kalejira, Gaztenahia koruarekin eta Betisia txarangarekin. Musika Eskolatik hasita.
19:00 Hitzaldia: 'Frai Francisco Martin Kruzelaegi Elgoibarko konposatzailea Espainia berrian'. Alonso Hernandez Prado Queretaroko (Mexiko) Unibertsitate Autonomoko irakasleak emango du. Musika Eskolako auditoriumean.

22 BARIKUA

8:30 Kalejira. Elgoibar Ikastolako ikasleak kalejiran egingo dute ikastolara arteko bidea. Kalegoen plazatik abiatuko dira.
18:30 Erakusketa: Erraldoi txikiak. Abenduaren 5era arte egongo dira ikusgai. Kultur Etxeko erakusketa gelan.
17:00-20:40 Odol ateratzeak, Mendaron. Txanda hartzeko: 634 073 498.
19:00 Bizi Poza txarangarekin kalejira, Mendaron.

AIZU! GASTROROCK ASTEA

15 BARIKUA

20:00 Kalejira: Rockalean taldearekin.
22:00 Kontzertua: Akerbeltz taldearekin, Maalako parkean.

16 ZAPATUA

20:00 Kalejira: Patxangoi elektrotxarangarekin.
22:30 Kontzertua: Idoia Asurmendi. Kalegoen plazan.

17 DOMEKA

12:00 - 15:00 Magia ikuskizuna tabernetan, Niala magoarekin.

'MIRARIAK' MAGIA JAIALDIA

16 ZAPATUA

10:00 / 11:15 / 12:30 Magia tailerra. 6-12 urte bitartekoentzat. Izena emateko: kontaktu@niala.es
19:00 Magia ikuskizuna: 'Hil edo ez hil'. Aita Agirre kulturgunean. 16 urtetik gorakoentzat.

17 DOMEKA

12:30 Magia ikuskizuna: 'Magia a tutiplen', Imanol Ituñorekin. Ikuskizun familiarra, Maalako parkean.
18:30 / 20:00 Magia ikuskizuna: '5 mago'. 12 urtetik gorakoentzat. Kultur Etxeko sotoan. (Aforo mugatua. Izena emateko: kontaktu@niala.es).

Zinea (Herriko Antzokian)



'La infiltrada'

16 zapatua: 19:00 / 22:15
17 domeka: 19:00
18 astelehena: 21:00



'Solo para mí'
(Ongarri zinekluba)

13 eguaztena: 21:00

2024ko
botika
ordutegiak:

09:00-13:00 / 16:00-20:00
GUARDIAK:
Egunez: 09:00-22:00
Larunbatak: 09:00-14:00 (■)

AZAROA

15 BARIKUA	Barrenetxea
16 ZAPATUA	■ Soto / ■ Yudego
17 DOMEKA	■ Soto
18 ASTELEHENA	Garitaonandia
19 MARTITZENA	Arriola
20 EGUAZTENA	■ Fernandez
21 EGUENA	Yudego
22 BARIKUA	■ Oruesagasti

2024 urte guztian, gauez:
Lekunberri Alberdi, Mikel Isasi, 31 (Eibar)
943 204 230

■ Fernandez:	■ Soto:	■ Oruesagasti:
Herriko	Rekalde, 1	Kalebarren, 9
Enparantza,4	(Soraluze)	(Soraluze)
Garagartza	943 751 638	943 751 384
(Mendaro)		
943 756 142		



San Roke kalea, 20
Elgoibar

TEMPUR ORIGINAL BURKOA OPARI,
TEMPUR FORM
KOLTZOI BAT EROSTEAGATIK.
(IKUSI BALDINTZAK)*

943 744 457 - 685 756 978 - www.textillagunak.com

TEMPUR

* TEMPUR, el único sistema de confort para el descanso. 100 años antes, TEMPUR FORM ofrece una experiencia de descanso perfecta con la tecnología TEMPUR. TEMPUR FORM ofrece una experiencia de descanso perfecta con la tecnología TEMPUR.

TEMPUR
FORM
KOLTZOIA



Ikusi eta ikasi

Anjel Ugarteburu



Umetan entzuten genuen esaera batek narama berriz ere hariari tira egitera: *“Educación de baserri, ez ikusi, ez ikasi”*. Bigarren zatia aldatuta ere bai: *zer ikusi, ha ikasi*”. Bigarren hau da, nik bizi eta dakidanez, egiazi dagokiona.

Aholku eta sermoi guztiek baino gehiago balio du adibideak. Ikusiz ikasten da, batez ere. Seme-alabek gurasoen praktikatik jasotzen dute jarraibiderik ziurrena. Garai batean etxea zen eskola bakarra; hizkuntza ezezik bertan jasotzen genituen bizitzarako armarik behinenak. Lur langintzan, arrantzuan eta gremioetako hainbat lanetan, ikusiz, lankide izanez eta trebatuz lortu du gizakiak gizartekide izatea. Alferrikoak dira aholkuak, zure jardunean beste era batera jokatzeko baduzu. Gaur egun, mobilarekin Internetek irentsita bizi garen honetan, adibidez, zenbat aldiz entzuten dugun umeak *pantallitis*ak jota daudela. Nagusiok nola gabilta, ba!

Ikusi genuen aita abarkak egiten. Gabonetan hildako txahalaren larrua ganbaran sikatu eta gero artaziekin moztu, forma eman eta lokarriak ere larru berarekin. Ikusi genuen ama artilea goruarekin harilkatzen eta gero galtzetinak egiten, lehenik artilea txipitxarekin jo-jo egin eta kirruan pasatuta. Aitak aulkiak ere egiten zituen, egurrez egitura eta zumitzez eserlekua xesteru baten antzera. Berdin otarrak ere. Kantuan entzun ere bai:

*“Errementari baino hobe da xesteru (bis)
lepo bete egurregaz kolko bete diru”*

Hala ateratzen zuen bizimodua Lekeition Satur xesteruak ere gerra ostean. Etxean egiteko astirik ez zuenarentzat aukera. Baita propaganda

jarri ere atarian, interpretazioan arretarik jarri gabe:

*“Se venden sillas y
se arreglan culos a las viejas”*

Ikusi genuen ama labeko sua egiten, lehenik garia errotara eraman, irina galbahean pasatu, labea berotu eta 15 egunerako ogia kaxan sartzen. Baita aita ere sagarrondoak ezitzen, abereak mimoz elikatzen, lurra behar zuenean ongarriztatzen. Jateko sagarrak ganbaran gordetzen eta beste batzuekin sagardoa egiten. Geuk zaintzen genituen behien esnetik edaten genuen eta geuk erein eta zaintzen genituen labore eta ortuariak jan.



Gaurko umeek, batez ere hirietakoek, esnea supermerkatuan egiten dutela uste dute eta ogiak zuhaitzetatik zintzilik daudela. Zapatilak eta txandalak Olentzero edo Errege magoen kontua direla... Gero... modaren kontua ere bada; denak behar du markakoa eta sarri-sarri berria erostea. Gure denboran arropak anaia eta ahizpa zaharragoengandik jaraunsten (heredatzen) genituen eta gustura erabili ere beharrezko konponketa eginda.

Barregura eman zidan aurreko batean lagun batek kontatu zidanak. Eskolako ekintzen artean baserri bat bisitatu zutela hirian bizi den bilobaren gelakoek eta bai abereak eta laboreak ikusi ere: Pozik ei zegoen biloba:

“Hemos visto una vaca en persona”

Ba, horixe. “En Persona” ikastetik “en pantalla” ikastera alde handia dagoela. Aurrerapen teknologikoei muzin egin gabe, baina hurbil ditugun pertsonak eta ikasgaiak aintzat hartuta asko irabaziko luke gure heziketak.



GREEN MI O E N GIDA



PINTURA

BIOK
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

LEIHOAK

ODR
ATEAK ETA LEIHOAK

Aluminio eta PVC arotzategia

Mota guztietako leihoak; salmenta eta konponketak
Atzek, leihoak, pertsiak, barandilak,
eltro-sareak eta toloak jartzen ditugu.

662 234 609

odrleihoak@gmail.com
Sagar Erreka Kalea 2, 20810 SORALUZE

AROZTEGIA

Biena, S.L.
AROZTEGIA

Ermuarenbide, 12-14-16
tel/fax. 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus

ITURGINTZA

PAGOAGA S.A.

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzano, 8
943 740 512
fax: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - ELGOIBAR
taller@pagoagasa.com
943 740 279

**IZURRIEN KONTRAKO
TRATAMENDUAK**

PLAGANATURA

Cuidando la Salud Ambiental

618 198 760

ivan@plaganatura.eus
www.plaganatura.eus

AROZTEGIA

iraolagoitia
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutze-gain industrialdea, 9
20850 Mendara
943 756 112
636 497 485

www.iraolagoitia.com

ITURGINTZA

SANTANA

Igor Santana
ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea, 17, behea
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

KONPONKETAK

LODOSOK KONPONKETAK

LODOSOK KONPONKETAK

- ✓ Leihoak
- ✓ Pertsiak
- ✓ Arotzeria metalikoa
- ✓ PVC arotzeria
- ✓ Eltro-sareak

Errosario kalea, 13, behea
lodosokonponketak@gmail.com

943 247 659
617 585 330

AROZTEGIA

IMAR
AROZTEGIA

Olaso industrialdea, 17 behea
943 531 471
609 054 978
carpinteriaimar@hotmail.com
 @carpinteria_imar

Gidan
agertzearen onurak!

943 743 704
 688 769 657

barren.publi@elgoibarkoizarra.eus

Alta Agirre Kulturunea, 3. ezk
20870 ELGOIBAR

23,82€
hilero

12
aldiz urtean

4.700
ale astero

23,82 Eren truke, hilero, zure enpresaren datuak
eta irudia erakutsiko ditugu BARREN astekarian.

BARREN astekaria da Elgoibar eta Mendaron
erakusleho ikusiena.

4.700 ale banatzen ditugu
Elgoibarren eta Mendaron DOAN.

Eman bultzada euskarari eta lagundu gure
proiektua finantzatzeko.

EUSKARAREN NAZIOARTEKO EGUNA ELGOIBARREN

EUSKELELEA

IPUIN MUSIKATUA

Euskal Barrokensemble,
Inazio Bereziartua
musika eta dantza eskolako
ikasleen partaidetzarekin.



Abenduak 1, domeka,
16:30ean,
Herriko Antzokian

5 € helduak

3 €

- Haur eta nerabeak (18 urte arte)
- Gazte txartela/65 urtetik gora

Sarrerak: herrikoantzokia.eus

ANARI

"Giza zarata" diskoaren aurkezpena



Abenduak 3, martitzena,
19:00etan,
Herriko Antzokian

Kontzertuaren atarian,
euskarari lotutako poesia-irakurraldia
izango da musikak lagunduta.

Sarrerak 10 €

3 € (gazte txartela/65 urtetik gora)

Sarrerak: herrikoantzokia.eus

ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:

